

## Gotzon Hermsilla

Hubert Brieden historialaria eta Mechthild Dortmund irakaslea Euskal Herrian egon dira, prestatu duten erakusketaren euskal bertsioari azken ukituak emanez. Kondor Legioaren eta, oro har, nazien aireko indarren desmasien inguruko erakusketak prestatu dute, Briedenek eta Tim Raedemacherrek 2010ean argitaraturiko liburuan oinarritua: *Luftwaffe, Judenvernichtung, totaler Krieg* izenekoan (Alemaniako Aireko Indarra, juduen sarraskia, erabateko gerra).

Euskal herritarren gomutan, Kondor Legioa Gernikako bombardatzeari loturik ageri da ezinbestean, baina Briedenek eta Mechthildek egindako lanak erakusten du horren erroak askoz luze eta sakonagoak direla eta batzuk gaur arte iristen direla. Apirilean, erakusketak Wunstorfen (Alemania) egongo da ikusgai, eta espero da laster Euskal Herrian ere erakusteko modua izango dutela.

**G Nola sortu zen Kondor Legioa ikertu eta horren inguruan erakusketak bat egiteko asmoa?**

**E** Alemaniako Hannover hiriko eskualdean bizi gara, eta han badago Alemaniako aireko armadaren gune garrantzitsu bat, Wunstorff izeneko. 1980ko hamarraldiaren hasieran talde bat sortu zen, eskualde hartako memoria historikoa berreskuratu nahi zuena, nazien garaiko kontuen inguruan tabu moduko bat zegoelako. Ikertzen eta lekuko batzuei galdetzen hasita, zurrumurru bat iritsi zitzaigun, Wunstorffeko base horrek Espainiako gerrarekin zerikusiren bat izan ote zuen. Eskualdeko artxiboetan arakatzeko hasi ginen, baina ez genuen deus aurkitu. Gaur egungo baseko komandantetzara ere jo genuen, eta hango arduradunek esan ziguten han ez zegoela inolako informazioirik horren inguruan eta baseak ez zuela inolako zerikusirik izan Espainiako gerrarekin.

**G Horretan gelditu zen ikerketa?**

**E** Ez, Freiburgeko artxibo militar nagusiak ikertu genituenean Kondor Legioaren hainbat agiri aurkitu genituelako. Horiei esker, jakin genuen Kondor Legioaren giza baliabide eta aireko tresnen heren bat Wunstorffeko basetik zetorrela eta bomba hegazkinetako pilotu asko, horien artean Gernika bombardatu zutenak, base horretan trebatu zirela. Ikerketaren emaitzak liburuxka batean argitaratu genituen, eta horrek nahikotxo harrotu zituen hautsak, batez ere, Wunstorffen. 1984an kontaktua egin genuen Gernikako zenbait elkarterekin, gutako batzuk Euskal Herrira etorri ginen, eta oso harrera abegitsua egin ziguten. Geroztik, beti mantendu dugu harremana Gernika Batzordearekin. Guk iker-



MONIKA DEL VALLE / ARGAZKI PRESS

Mechthild Dortmund eta Hubert Brieden • Historialariak

## «Batzuk saiatu dira Kondor Legioaren historia beltza ezkutatzeko»

*Gernika bombardatu zuen Alemaniako legioaren inguruko erakusketak atondu dute Briedenek eta Dortmundek; gaurtik aurrera, Wunstorffen, aireko base militarra duen hirian, egongo da ikusgai, eta aurki Euskal Herrira ekarriko dute.*

tzen jarraitu genuen, eta frogak gehiago aurkitu genituen, Wunstorffeko baseak Gernikako bombardaketan izandako garrantzia agerian uzten zutenak.

**G Esaterako?**

**E** Wolfram von Richthofen mariskalaren egunkaria aurkitu genuen. Kondor Legioaren arduradun nagusia ez ezik, iparraldeko frontean aritzen ziren aireko in-

dar faxista guztien buru ere izan zen Von Richthofen, alemanak, italiarrak eta espainiarrak barne. Egunkari horretan zehaztasun handiz aipatzen ditu Gernikako bombardatzearen inguruko xehetasunak: erabateko arrakasta izan zela idazteaz gain, datu tekniko ugari jasotzen ditu, hiri zibil bat erabat suntsitzeko zenbat material behar zen jakiteko. Gernikan

ikasitako guztia erabili zuten geroago II. Mundu Gerran; esaterako, 1939ko irailean Poloniari eraso egin zioten hegazkin guztietan bazegoen gutxienez Kondor Legioan aritutako pilotu bana, han ikasitako erabili ahal izateko.

**G Erakusketak ikerketa horien guztien emaitza al da?**

**E** Bai. Iaz prestatu genuen, Gernikako bombardaketaren 75. ur-

teurrenaren harira, eta Alemaniako zenbait hiritan egon da ikusgai. Apirilaren 7tik aurrera [gaur] Wunstorffen erakusteko da, base militarra dagoen hirian. Gai hori jorratzeko nahiko uzkur agertu dira beti hiriko agintariak, eta hasieran polemika handia sortu bazen ere, gaur egun inork ez du zalantzan jartzen base horrek Gernikako bombardaketan

**«Wunstorffeko base militarrek besoak zabalik hartu zituen beti Kondor Legioko betianoak»**

izan zuen parte hartzea. Ikusiko dugu orain zer gertatzen den, interes handia dugu jakiteko nola erreakzioak sortzen diren erakusketaren inguruan, adibidez, militarren aldetik.

**G Zergatik da gaia hain deseroso baseak kudeatzen duten oraingo militarrentzat?**

**E** Gerra amaitu ondoren ere, topaketa asko egin zituzten Kondor Legioko betianoek eta militar berrien artean, betiano horiek Alemaniako aireko indarretako belaualdi berriei beren eskarmentuaren berri emateko asmoz. Topaketa horiek isilpean egiten zituzten, eta orain hasi gara horren inguruan gehiago jakiten. Base horrek besoak zabalik hartu zituen beti Kondor Legioaren betianoak. Egun, erabiltzen dituzten zenbait ikurrek Kondor Legioaren ikurren antz handia dute, eta Ju 52 hegazkinari buruzko museoa atondu dute, horren izaera bakesua goraiatuz, baina ezkutatzeko hegazkin horiek Gernika eta Durango suntsitzeko erabili zituztela. Batzuk saiatu dira basearen eta Kondor Legioaren historia beltza ezkutatzeko. Egun, base hori handitzen ari dira, NATOk erabiltzen du Alemaniako armadarekin batera, eta Afganistan, Somalia eta beste zenbait lekutan bombardatzeak egiteko baliatu dute.

**G Beraz, Alemanian ere ezkutatu egin da eragile batzuek izandako arduraren erregimen nazian?**

**E** Bai. Bi arrazoi egon ziren horretarako: alde batetik, antikomunismoak eta Gerra Hotzak II. Mundu Gerraren ostean sorturiko giroa; eta, beste aldetik, ezin dugu ahaztu Alemaniaren berre-raikuntzan erregimen naziko eragile askok hartu zutela parte. II. Mundu Gerraren ostean, Alemaniak ez zuen armada sortzeko ahalmenik, baina 1956an hiri aldatu zenean, nazien armadan aritutako beharra izan zuten. Kalkulatu da Alemaniako armada berriro sortu zenean, kideen %80 inguru SS, SA eta bestelako erakunde nazietako kide ohi edo armada naziko kide ohiak zirela.